Irabazi	=ganar	Arauk			=las reglas
Galdu	=perder	Legez			=bien, según reglas
Parra egon	=hacer tablas	Charto (tsarto)			=mal
(Galzakea	=tablas. Novia Salcedo)	Legez-kontra			=contra ley
Arerioa	=el contrario	Arauga			=sin regla
Eskubidea	=el derecho, la razón	Erara			=bien, conveniente-mente, al caso, á placer, al pelo
Eskualdia	=la jugada	Era-bitan			=de dos maneras
Amaia	=el final	Era-askotan			=de muchas maneras
Amaitu	=terminar	Eskualdi bitan			=en dos jugadas
Jokatu, iokatu	=jugar	Birritan, birriz,			=en dos tiempos
Jokalari, iokalari	=jugador	Batan, batean			=en una jugada
Obaari	=ventaja	Batzuetan			=en varias jugadas
Goi-beia	= " "	Ezereztu			=anular
Geiak ateratu	=sacar las piezas	Uts			=falta, error
Gei bat iltzatu	=clavar una pieza	Bako			=falta ex-regla
Baldin	=á menos que	Arauz			=reglamentaria-mente
Ontzat	=por bueno, como bueno	Ikutu			=tocar
Uste uste barik	=inadvertidamente	Alkarren ondoren			=seguidos
Gelditu	=quedar	Egoera			=situación, posición
Zaiñdu	=cuidar, defender	Eragoera			=al mover, se
Jagon iagon	= " "	Autu			=elegir, escoger
Barriro	=de nuevo, nuevamente	Truk			=cambiar
Aztu	=olvidar	Ezbai			=duda
Aukera	=elección	Argitaratu			=aclamar
Aukeratu	=escoger, elegir	Guda			=lid, guerra
Jarraitu, iarraitu	=seguir, continuar	Gudari			=lidiador, atleta
Chandaka	=á turno, á veces	Gudantea			=ardid, estratagema
Sandsaka	= " "				
Balioa	=precio, valer				
Garki	=bugía, luz				
Argunzi	=lámpara, luz				
Bakarti	=solitario, aislado				
Alkarti	=combinado				

# AJEDREZ-

# ARAUAK



# REGLAS

DEL

# AJEDREZ

## LENENGOA

Laukidiak iokalariak erara ipiñi bear dabez, au da, euren eskuma-aldean beeko zokondoko laukitsu zuri bat eukiteko eran. Laukidia tsarto ipiñita egonezkero, dakusanak, *laugarren eskualdia* iokatu baiño lenago, iokoa barriro asi eragiteko eskubidea dauko.

## BIGARRENA

Geiak tsarto ipiñita egonezkero, dakusanak barriro iokoa asi eragiñ daike, *laugarren eskualdia iokatu-aurrean*; gero ez.

## IRUGARRENA

Nai edozein Gei nai Oñezkorren bat aztuezkeru, arerioaren aukeran egongo da iokoa barriro astea edo Gei aztua ipiñten istea.

## LAUGARRENA

Obaari edo goi-beiren bat emonezkero eta asieran obaari au aztu izan balitz, kaltetuaren eskubidean egongo da iokoa barriro astea edo iarraitutea.

## BOSKARRENA

Urteierea Gei zuriari beti iagoke. Onetarako Gei onek lenengo iokoan

## ARTÍCULO 1.º

El tablero debe colocarse bien, esto es, de manera que los dos jugadores tengan á su derecha una casilla blanca del ángulo inferior. Si el tablero estuviere mal colocado, el que lo observe, *antes de hacer su 4.ª jugada*, puede exigir que se comience de nuevo la partida.

## ART. 2.º

Si las piezas estuvieren mal colocadas el que lo note podrá exigir se rectifique la equivocación solamente antes de hacer la 4.ª jugada.

## ART. 3.º

Si se olvidase alguna pieza ó peón, el adversario podrá escoger entre comenzar de nuevo la partida ó dejar colocar la pieza olvidada.

## ART. 4.º

Si se hubiera convenido en conceder alguna ventaja y ésta se hubiera olvidado al comienzo, el perjudicado podrá escoger entre seguir la partida ó comenzarla de nuevo.

## ART. 5.º

La salida corresponde siempre á las piezas blancas, sorteándose éstas

nontzat izan egingo da, ta gero sandaka edo tsandaka eukiko dabez iokalariak. Gei baten obaaria emon dabenak, Gei zuriakaz iokatuteko eskubidea dauko, urteteko bere bai; onen kontrako egiunerik edo alkaradituterik egonezik.

#### SEIGARRENA

Nok lenengo urten iakinezik, Gei zuriak nontzat izan egingo da. Arerioari Gei zuriak emoteak, lenengo iokoan urteteko eskubidea beragaz daroa.

#### ZAZPIGARRENA

Oiñezko baten obaaria emoten danean, beti izan oi da (E. G. O.) Errege Gudarien oiñezkoa. Eskualdi batzun obaaria artu dabena, eskualdi onetan laukidi-erditik aurrera ezta ioan al izango.

#### ZORTZIGARRENA

Nai Gei nai Oiñezko bati ikutu dautsanak, beragaz eskualdi bat iokatu bear dau, ondo ipiñteko dala arerioari lenago esan ezpadautso.

#### BEDERATZIGARRENA

Geia eskuan daukanartean, edonun ipiñi al izango dau, egoan lekuan ez eze.

#### AMARGARRENA

Aurretikoartu barik, arerioaren Gei bati ikutu dautsanari besteak artu eragiñ lekio, arauz edo legez al bada: bestela Errege lokatu edo erabilli bear izango dau. Ez bata ez bestea egin ezin bada, utsa edo bakoa, ondoren barik edo ikutu ezpaleutso legez, geldituko da.

#### AMAİKAGARRENA

Norberena barik Gei bat uste uste barik erabilli dabenak, arerioaren aukeran iru eskualdi onetatik bat egin bear izango dau: 1.º Gei au norberen bategaz (bestea artu daikeanagaz) artu; 2.º ipiñiriko lekuan itsi; 3.º lenengo egoan laukitsura eroan, baiña

en la primera partida y cambiando alternativamente de color. El que da una pieza de ventaja tiene derecho á jugar siempre con blancas y por consiguiente á la salida, á menos de pacto en contra.

#### ART. 6.º

En caso de duda de á quién correspondan la salida, se sortearán los colores. La cesión de blancas al contrario implica la cesión de derecho á la salida en la primera partida.

#### ART. 7.º

Cuando se conviene en dar la ventaja de un peón, se entiende siempre el peón de alfil del Rey (P A R). El que recibe ventaja de varias jugadas, se entiende siempre á no pasar de la mitad del tablero en ninguna de las jugadas concedidas.

#### ART. 8.º

Cuando se toca una pieza ó peón se está obligado á jugarla, á menos de no haber avisado al contrario previamente si fuese para arreglarla.

#### ART. 9.º

Mientras no se haya suelto la pieza de la mano, se puede colocarla de nuevo donde convenga, menos donde se hallaba.

#### ART. 10

Cuando se toca una pieza del contrario sin previo aviso, puede obligar á tomarla, si esto fuese posible; y en caso contrario, á mover el Rey. Si no se puede hacer una cosa ni otra, (dentro de las reglas del juego) queda la falta sin consecuencias.

#### ART. 11

El que juegue una pieza del contrario, estará obligado á elección del jugador de quien fuese la pieza tocada: 1.ª á tomarla con otra pieza (si fuera posible); 2.ª á dejarla donde equivocadamente la hubiese puesto; 3.ª donde primitivamente estuviera

onetarako Errege lokatuko dau, moltsoan gelditu- ezik.

#### AMABIGARRENA

Arerioan Gei bat arauga edo legez kontra artu dabenak, arauz edo legez artu bear izango dau; ta au al izan- ezik, Gei ikutua iokatu bear izango dau.

#### AMAIRUGARRENA

Norberen Gei bat norberen beste batgaz artu dabenak, bata edo beste iokatu bear izango dau, arerioaren aukeran.

#### AMALAU GARRENA

Norberen Gei bat arauga iokatu dabenak, iru eskualdi onetatik bat iokatu bear izango dau, arerioaren aukeran: 1.º Ipiñi daben laukitsuan itsi: 2.º Arauz iokatu: 3.º Egoan laukitsuan itsi, baiña onetarako Errege erabilliko dau, moltsoan geldituten ezpada.

#### AMABOSKARRENA

Birritan, alkarren ondoren, iokatu dabenak, azkanengo eskualdia eze-reztu egin bear izango dau, baldin arerioak eskualdi biak ontzat artu- ezik.

#### AMASEIGARRENA

Oiñezko guztiak lenengo eskual- dian laukitsu bi aurreratu al izango dabe; areioak baiña beren oiñezko batgaz *bidean* artu al dau.

#### AMAZAZPIGARRENA

Errege aldapena egieran laukitsu bi baiña geiago ezin lokatu izango da, orduan bere, beragaz aldatuten dan Torre- aldera. Orduan Torrea Erregean ondoan geldituko da, ta Errege, ganetik iuti eginda, Torrea egoniko laukitsu ondora ioango da.

Errege, lendik lokatuta badago, ezta aldatu al izango, Torre lendik erabilliaz bere ez; ez moltsoan ego- eran; ezta iragoeran moltsotuten ba-

moviendo en su lugar el Rey (si pue- de hacerlo sin ponerse en jaque).

#### ART. 12

El que tome una pieza del contra- rio con una propia, contra el movi- miento natural de las piezas, estará obligado á tomarla con otra que pue- da hacerlo ó en su defecto á jugar la pieza tocada.

#### ART. 13

El que tome una pieza propia, con otra tambien suya, deberá mover una de las dos á elección del adversario.

#### ART. 14

El que juegue una pieza propia contra el movimiento natural de ésta, deberá, á elección de su contrario, dejarla donde la hubiese colocado, ju- garla según su marcha natural ó de- jarla donde se hallaba moviendo en su lugar el Rey (si puede sin ponerse en jaque).

#### ART. 15

El que juegue dos veces seguidas, deberá deshacer la última jugada, á menos que el contrario exija la va- lidez de ambas jugadas.

#### ART. 16

Todo peón tiene el privilegio de poder avanzar dos casillas la primera vez que se juega, pero en todo caso puede ser tomado *al paso* por *otro peón* contrario.

#### ART. 17

El Rey al enrocar solamente puede moverse dos casillas en dirección á la torre con que enroca. En este caso colócase la torre al lado del Rey y éste, saltando por encima, se coloca en la casilla inmediata á la que ha ocu- pado la torre.

El Rey no puede enrocar cuando se haya movido, ni con una torre que se haya movido; ni en el momento de estar en jaque, ni si lo recibe al pa-

dabe bere. Onako aldiren baten aldapena egiten bada, arerioak eskualdia ezereztuteko eskubidea eukiko dau, ta Erregeri edo Torreari beren aukeran iokatu eragitekoa.

Torre baten obaarria edo goibeia emon dabenak, aldapena egiñ daike eztagoan Torre-aldeetik, balegoan, esanaz: *aldapena*.

#### AMAZORTZIGARRENA

Oiñezko bat zortzigarren laukitsura eldueran, Andreagaz edo norberak auturiko Geiren ordeaz bategaz egiñ bear dau.

#### EMERETZIGARRENA

Errege moltsoan ipiñi barik ibilli ezin dan Gei bat erabilli edo iokatu dabenak, ezereztu egin bear izango dau eskualdia, ta Errege lokatu al bada.

#### OGEIGARRENA

Errege moltsoan ipiñteko aurretik-esan bear da (osterantzean Errege iagon edo zeinduteko premiñarik ezta egongo); baiña arerioak iokatu baiño lenago, Errege molsoturik geldituten dala ikusi-ezker eskualdi ezereztu ta Errege iagon-eragin al izango dau.

#### OGETABAKARRENA

Errege uste uste barik moltsoan eskualdi batzuetan geldituezker, arerioak dakusanean iagon edo zaiñdu eragiteko eskubidea dauka, eta eskualdia ezereztuteko bere bai, baldiñ egiña balego.

#### OGETABIGARRENA

Errege erabilli dabenak, arerioak moltsoan dagoala esan dautzalako olan ezuala, eskualdia ezereztu al izango dau.

#### OGETAIRUGARRENA

Geiengan, edozeiñ uts edo bako ondutan da arerioak iokatuta gero, eta orduan ezuala iokaldia ezereztu bear.

#### OGETALAU GARRENA

Nai Errege nai Gei bat ez bat ezin

sar. Si en algún caso de estos tres se enroca, el contrario tiene derecho á que se anule la jugada y á obligar á jugar el Rey ó la torre á su elección.

El que da ventaja de una torre, puede enrocar por el lado de la torre que falta como si existiera, diciendo: *enroco*.

#### ART. 18

Cuando un peón llega á la 8.<sup>a</sup> casilla es preciso cambiarlo por Reina ó por la pieza que uno escoja.

#### ART. 19

El que juega una pieza que no pueda moverse sin dejar al Rey en jaque, deberá anular la jugada y mover el Rey si es posible.

#### ART. 20

Es obligatorio avisar el jaque al Rey (que no hay obligación de defender si no); pero si antes de jugar el contrario notase que se deja el Rey en jaque, puede obligar á deshacer la jugada y á defender al Rey.

#### ART. 21

Si el Rey, inadvertidamente, quedase en jaque durante varias jugadas, en el momento que lo note el contrario puede obligar á defenderlo y si ya se hubiese jugado á deshacer la jugada.

#### ART. 22

El que mueve el Rey por haberle avisado jaque el contrario, sin serlo, podrá deshacer la jugada.

#### ART. 23

En general toda *falta* queda cubierta desde el momento que juega el contrario de quien la hizo y ya no debe volverse la jugada.

#### ART. 24

Cuando no puede moverse el Rey



## GURE BANDERA

Anboto dakust triste, bai, triste  
Negarrez Oiz-mendia  
Euskaldun goyak danak diñoste  
Ilten da zarra guztia;  
Ill zan ill Lelo, ill Lekobide,  
Ill zan ill zan Jaun Zuria,  
Ill ziran gure gizon andiak,  
Iya ill Euskal-erria,  
Alan ezpada esan daiala  
Arbola orrek egia.

Arech maitea, esan egizu  
Euskeraz berba egiñik,  
Iñoz aurkitu ete dan lur au  
Tayu onetan geisorik.  
Autortu zaitte zeu bere egon  
Bazara orren sikurik,  
Bazara egon iñoz orrelan  
Ezkurrik emon eziñik  
Urte askogaz ukatu eta  
Bazengoz lege zarturik.

Autortu zaitte lotsa bagarik,  
Arbola entzutetsua,  
Autortu zaitte zetzara zu zeu  
Arech danetan santua?  
Esan egizu zeure gloria  
Zelan jarri dan gautua,  
Nondik ta nora gaur zu zagozan  
Orrenbestean galdua,  
Iñoz ez izan haziña legez  
Arbola Gernikakua.

## NUESTRA BANDERA



Triste contemplo á Amboto, sí, triste,  
llorando está el monte Oiz,  
todas las alturas del país me dicen:  
Todo lo viejo está destinado á morir.  
Murió Lelo, murió Lecobide  
murió, murió Jaun Zuría,  
murieron todos nuestros grandes hombres  
el mismo pueblo euskeldun está á punto de morir,  
de no ser esto cierto diga  
ese Arbol la verdad.

Roble amado, decid  
hablando en euskera  
si alguna vez ha estado esta tierra  
enferma en esta traza,  
manifestaos vos misma si habeis  
estado tan seca como al presente,  
si alguna vez habeis estado así  
sin poder dar fruto,  
como si quebrantada por los años  
entuvieseis ya envejecida.

Manifestaos, deponiendo el rubor,  
¡oh Arbol famoso!  
manifestaos ¿no sois vos  
santo entre todos los robles?  
Decid cómo vuestra gloria  
se ha cubierto de la noche,  
por qué medios estais vos hoy  
perdido hasta ese punto,  
como si nunca hubieseis sido  
el Arbol de Gernika.

Gaur emeretzi urtecho dira  
Ill jatazala bai pozak,  
Zerren buztartu ein ginduezan  
Secula ez da gu motzak,  
Eta euren nausi gaztelar batek  
Jaurtigi eutsun ayotzak  
Zergaitik zuri eutsuzan barriz  
Besangok ichi billoizak,  
Ordurik ona pozik ez dauka  
Nik legez zure biotzak.

Ordurik ona negarrez zagoz  
Arech lenago dontsua,  
Zergaitik jausi jatzun chimista  
Sutsu bat donga gaiztua,  
Iya orririk bakua,  
Agaitik zagoz lengo aldean  
Ain asko aguratua  
Zure azpia ¿nok kantau daike  
Dala Batzarren lekua?

Beti ikusi or zinduezan  
Jakitun danak itzalez  
Zarealako zu Arbola bat  
Zerutik jatzia legez,  
Zure adarrok direalako  
Irabaziak odolez,  
Ichi bagarik iñoiz loituten  
Dongen fede char zitalez  
¡O baiña miña! Gaur erdaldunak  
Darabilguez dandarrez.

Etzinduezan Arech maitea  
Euriak utsik or azi  
Etzinduezan iñontz bigunak  
Perlakaz barririk jantzi,  
Ezpada milla gerretan gogor  
Asabak einda esetsi,  
Euren odola suster danetan  
Egin zenduan iruntzi,  
Aize erreak zeu igartzetik  
Iñoz ez eyen jaritsi.

Hoy hace diez y nueve años  
que se me murieron las alegrías,  
porque lograron ponernos bajo yugo  
como nunca los achaparrados,  
y porque la cuchilla que os arrojó  
un castellano jefe de ellos  
os dejaron de nuevo  
desnudos vuestros brazos.  
Desde entonces acá no tiene contento  
vuestro corazón, como tampoco el mío.

Desde entonces acá estais llorando  
Roble antes feliz,  
por habérseos caído un rayo  
impetuoso, pésimo, malhadado;  
así teneis desnuda la cabeza  
casi desprovista de hojas,  
así estais respecto á lo que fuisteis,  
tan avanzado en la ancianidad.  
¿Quién podrá cantar que debajo  
de vuestras ramas se celebraban las Juntas?

Siempre os vieron ahí  
con respeto los sabios  
porque sois un Arbol  
como bajado del cielo  
porque tus ramas son  
sostenidas con sangre  
sin dejar que jamás se mancharan  
de la artera mala fe de los malvados.  
Mas ¡oh dolor! Hoy los extraños  
nos las traen arrastrando.

No las lluvias tan sólo, Roble amado,  
os habían ahí criado,  
no solamente el rocío blando  
os vistió de perlas,  
sino que en mil combates  
acometiendo con bravura los antepasados,  
su sangre en todas vuestras raíces  
habíais bebido  
para que vientos malsanos  
no consiguieren jamás secaros.

Sarritan izan ziran benetan  
Uda odeitsu tristiak  
Sarri bai sarri Gaztela-aldeko  
Trumoi-ots bildurgarriak,  
Zugana eldu ezin zirean  
Baña euren oñaztarriak,  
Ta bai atzera biurtzen ziran  
Erdal-errira guztiak,  
Ipar-aizeak zirealako  
Lur onetako nausiak.

Alperrak ziran euren asmoak  
Utsak gaztelar indarrak  
Zirealako bai euskaldunak  
Beti izaten bat danak;  
Erdaldunakaz nastu bagarik  
Ziran zur biziten zarrak,  
Euskal-legeak gordetan zintzo  
Izanik zoli ta zalak,  
Bizkayan beti agindu eyen  
Bizkaitar garbi bakarrak.

Agurtzen zaitut orrechegaitik  
Guraso zarren bandera  
Agurtzen zaitut izar argizko  
¡O estandarte ederra!  
Agurtzen zaitut irauñ dagizun  
Zedro tantañen antzera  
Bizi zaitean eurak legeche  
Millaka urteetan aurrera  
Zabaldu daizun zeure kerizpe  
Barria euskal-lurrera.

Osatu zaitte eta barriro  
Jasoizu bekoki ori,  
Zerua bera jo arteraño  
Lauburu zarra eregi,  
Bere besuok izan bekiguz  
Beti ta beti pozgarri,  
Erakusteko zer dan Bizkaya  
Oraindik mundu danari,  
Ezeutsalako buztartzen ichi  
Iñoz erromatarrari.

Con frecuencia hubo por cierto  
veranos nebulosos tristes,  
con mucha frecuencia se oían  
los pavorosos ruidos del trueno de Castilla,  
mas no pudieron llegar á vos  
sus rayos  
pues retornaban  
todos á tierra extraña,  
porque vientos del Norte  
reinaban en esta tierra.

Sus proyectos fueron inútiles  
vanos los esfuerzos castellanos  
porque solían los bascongados  
aunar siempre sus voluntades;  
sin mezclarse con los extraños  
solían vivir siempre expertos los antiguos,  
siendo en guardar las leyes del país  
fieles, briosos y nervudos,  
para que en Bizkaia mandasen siempre  
únicamente los bizkainos netos.

Por lo mismo os saludo,  
bandera de nuestros antepasados,  
os saludo ¡oh hermoso estandarte!  
bordado de luces de estrella.  
Os saludo para que dureis  
como los cedros bravíos  
y vivais como ellos  
miles de años en adelante  
y esparzais vuestra sombra  
nueva en el país euskaldun.

Salud y de nuevo  
erguid esa frente,  
alza el viejo *Lauburu*  
hasta llegar al cielo mismo,  
sus brazos seannos  
eternamente consoladores;  
y podamos mostrar lo que es Bizkaya  
aun ahora al mundo entero,  
por no haber sufrido jamás  
el yugo del romano.

Bizkortu zaite ainbat lasterren  
Sendatu zeure zauria  
Indar barriak artu egizuz  
Alegereku begia,  
Zabaldu begi Lauburu orrek  
Bere zeruko argia  
Beti kristiñau izan dakigun  
Gure Euskaldun Erria,  
Eta bertatik aldendu dedin  
Libertade char guztia.

Berorregaz guk egingo dogu  
Arerio danen kontra  
Zure gañetik ez da ekachik  
Egingo deuskunik bota,  
Zerren Bizkaya lenago chito  
Ikusiko dan lur jota,  
Gure odola errekek legez  
Ichasoagaz batuta  
Gure Arech au ikusi baño  
Lauburu zarra kenduta.

¡O euskaldunen Lauburu zarra!  
Gatoz zu adoretara  
Gatoz ¡o Arech illezgarria!  
Zure kerizpe onetara,  
Arerioak jakin dagien  
Gatozan ona zertara,  
Gatozalako euskaldun utsak  
Emenche batzera bada,  
Ots egiteko bizi dedilla  
Gure Arbola laztana.

F. DE ARRESE.

Vigorizaos lo antes posible,  
curad vuestra herida,  
cobrad nuevas fuerzas,  
alegría expresen vuestros ojos,  
esparza ese Lauburu  
su luz celestial,  
para que siga siempre siendo cristiano  
nuestro pueblo euskaldun,  
y se alejen de él  
todas las malas libertades.

Con él haremos rostro  
á todos nuestros enemigos,  
no hay tempestad que pueda  
arrojárnoslos por cima de vos;  
pues antes Bizkaya  
se verá assolada,  
antes nuestra sangre como los arroyos  
se unirá al mar  
que veamos nuestro Roble  
desprovisto del viejo Lauburu.

¡Oh viejo Lauburu de los euskaldunes!  
venimos á adoraros  
venimos ¡oh Roble inmortal!  
á cobijarnos bajo vuestra sombra,  
para que sepan los enemigos  
á qué venimos acá,  
pues venimos euskaldunes netos  
á unirnos aquí mismo  
y gritar que viva  
nuestro Arbol amado.

F. DE ARRESE.

## ONDORATUAK

Atzo edo baten Elantsobera ta Bermeo, gaur beste erri bi dira itsasoari euren edola emon dautsenak.

Elantsobera ta Bermeo alargunen negarrak ondiño legortu barik, emazte bat baño geiago alargandu dira Ondarroan da Algortan.

¡Arrantzale gizagaisoak! Ondo nekez irabazirikoa da beintzat zeuen ogia. Zuekaitik, poza begietan da biotzean dogula, esan daroagu euskaldunak: zeuek zareela Euskalerriko gizonik Elizarakoienak, zeuek zeruaz geien gomuta izaten zareenak, zeuek ekandurik garbikoenak, zeuek euskaldunik zintzoenak. Arrigarria izango litzake zuek beselakoak izatea.

Eriotza-kontra kontran, zur mee mee bat bitartean dozuela, bizi zareenok zelan baketuko zendukee zeuen barrua, laungoikoagaz adiskidetasun onean bizi ezpalitz? Gizonen laguntasuna gitsien daukazuenok, launaren laguntasuna bearren dozue. Lurretik urrunduta ibilli zabilzenok, ondo egiten dozue zerutik urre bizi izatea. Usterik gitsien danean, itsasoak bere erraietan zuen gorputza iruntsiaz, zuen arimaak laungoikoaren aurrera agertu bear izaten dabeta.

Ezereza da zuek orrenbeste neke ta lorren orde zurrean iaristen dozeuen saria: ogi-zati bat, bera geie-nuan zoorrean.

Zuekaz aaztuta bizi dira, gure artean gizon andi-irudikoak paperetan goratu-eziñik diarduenak; zuen gomutarik eztabe, aterik ate dabillen nagi alper baldanari diru emoten dautsenak; gure Buru egiten direnak bere, zuen bear-erduetan eztabe kanpotarren bear-ordueta da estu-

## NAUFRAGOS

Ayer Elanchobe y Bermeo, hoy otros dos pueblos han pagado á la mar su tributo de sangre.

Sin haberse aún secado las lágrimas de las viudas de Elanchobe y Bermeo, más de una esposa ha quedado sin marido en Ondarroa y Algorta.

¡Pobres pescadores! ¡Cuán penosamente ganais el sustento! Por vosotros, con el corazón y los ojos henchidos de gozo, hemos dicho los bascongados: que entre los hombres de Euskalerría sois los más fieles á la Iglesia, los que del cielo más se acuerdan, los de más puras y limpias costumbres. Triste y asombroso sería, en verdad, si fuereis lo contrario.

Los que siempre vivís muy cerca de la muerte, sin que os separe de ella más que muy delgada tabla ¿cómo, no viviendo en continua amistad con Dios, podríais abrigar paz en vuestro interior? Los que más careceis de la ayuda humana, más necesitáis de la ayuda divina; porque, cuando menos lo esperais, sepultados vuestros cuerpos en las entrañas del mar, tienen vuestras almas que comparecer ante Dios.

Nada es lo que en compensación de tantos trabajos adquirís en la tierra; un pedazo de pan, y adeudándo-los las más de las veces.

Los que tratan de ensalzar en papeles á hombres de dudosa importancia, viven olvidados de vosotros, no se acuerdan de vosotros; y socorren al vago de profesión y enemigo del trabajo que de puerta en puerta pide limosna; y nuestras autoridades no demuestran su munificencia y riqueza.

aldietan legez euren zabaltasuna ta aberatasuna erakusten.

Baiña gizonak zuekaz aaztuta bi-ziarren, Iaungoikoak beti beti zaukez beren begietan da biotzean.

Lurrean zuen neke gogorrak sari tsikia, utsa, eukiarren, zeruan dauke uste dan baiño sari oeba.

Izan zaiteze gaur-arte legez Eliza-zaleak, Meza nagosietarako aurrere-enak, Abadeen berbaldiak entzuteko gogotsuak, ekandu onetakoak, zeuen etsadietan guraso onak, erri-maiteak, euskaldun zintzoak... eta gero eriot-zea noiznai etorriaren, bizitza oba batera ioateko giltza izango dozue, Iaungoikoaganako mandataria.

*Euskalzalek*, Bizkaiko lau erri on-etan ito direanak gomutaeran, gauza bi eskatu nai datusez irakurleai: ba-ta, au irakurrita gero, arren labur bat, *Aita gurea* bat, esan daiela itoen arimen ornigarritzat; bestea, bako-tsak al daben giñoan, diru-apurren bat bialdu daiela, euren alargun da ume-zurtzen nai etsekoen ezunea ze-lanbait beteteko.

*Elantsoben da Bermeon da Onda-rron da Algortan ito direanen etsa-diai.*

LAGUNGARRI BAT

*Euskalzalek*, lengo ogei errealeñ ganera. . . . 20 erreal.

za en vuestras necesidades como en las de pueblos extraños.

Pero aunque los hombres vivan en vuestro completo olvido, la divina Providencia tiene siempre en vos-otros fijos sus ojos y su corazón.

Aunque la compensación de vuestros trabajos sea en la tierra escasa, nula, en el cielo tienen mejor de la que parece.

Sed, como hasta hoy, fieles y su-misos á la Iglesia, los primeros en acudir á sus solemnidades, á Misa, deseosos de oír la palabra divina de boca de los sacerdotes, de buenas costumbres, buenos padres de fami-lia, amantes del pueblo, patriotas, fieles euskaldunes, y luego, aunque la muerte venga cuando quiera, será la llave que os pase á mejor vida, la que reetos os llevará á la presencia del Señor.

*Euskalzale*, á la memoria de los náufragos de los cuatro pueblos biz-caínos, dos cosas pide á sus lectores: una es, después de esto leído, una breve oración, un *Padre nuestro*, en sufragio de las almas de los náuфраgos; otra, un socorro, en la medida de sus fuerzas, para de algún modo llenar el vacío de aquellas familias compuestas hoy de inconsolables viu-das y afligidos huérfanos.

## SUSCRIPCIÓN

para socorrer á las familias de los náufragos de Elanchobe, Bermeo, Ondarroa y Algorta.

*Euskalzale* . . . . 20 reales

(Traducido de *Euskalzale* por M. V. para *El Basco*).

## BATSI GUZUR

### LENENGO AGERRALDIA

#### APALAURREAN

Aizurdi-mendi-sorbalda-ganean luze luze etzunda, artadi itzaltsu edo gerizpetsu baten adarpean, t̄sori bakesu askon t̄sioakaz pozkor poskortsu, aldauri bat dago, oillo loka batek t̄sitak euki daroazan antzora, lau etse beren magalpean daukazana. Aldauriari *Satika* deritso. Beren lau etseak *Satika goseaskoa*, *Satika beaskoa*, *Satika nagosia* ta *Satikatsu* dabez izenak.

Uda ta negu, zein euri zein aterri, nai eguzki galdatan nai lei-antziarra buruan dabela, bai soloak galgarau-eske dagozanean da bai soloetako galburuak etsera begira egotorduan, Satikak beren leio illunak, begi baltz eder batzun gizan, it̄sasaldera begira euki daukaz; eta it̄sas-ertzean, Aizurdipeko *Santa Kataliñak* argi-mutilla eskuetan daukala, erri polit polit bat dakuse: erri garbia, arraintsua baiña arrain-sunda bagakoa; *leku itua* baiña arnasaz da adopez betea; erdaldunen begikoa, baiña bizkaitar utsa; erri ikusgarri, Elizarakoi, erri maitagarria: neu iaio nintzan erria.

Labandu beiez gizonak euren miiñak, iaio terra bururatuten iakeanean; euki beiz bakotsak beren erriko mendietako karatsak urre muintzat, erroiak usakumetzat, urret̄sindorren kanta zolitzat beren erriko asto zaarren arrantza gortugarriak. *Bakotsak* ordu onean *beren opilari su* egin beio.

## BAUTISTA EL EMBUSTERO

### CAPÍTULO PRIMERO

#### ANTES DE CENAR

*Tumbado á la larga*, en la cima de la loma del monte Aizurdi, bajo el ramaje de un sombrío encinal muy alegre con los jorgeos de muchos pacíficos pájaros, está un arrabal, que así como una gallina clueca tiene sus chitas, tiene cuatro casas bajo su patrocinio. Al arrabal se le llama *Satika*. Sus cuatro casas tienen por nombre *Satika* la de arriba, *Satika* la de abajo, *Satika* la mayor y *Satikilla*.

Invierno y verano, llueva ó escampe, hora expuesto á caldeante sol, hora teniendo escarcha sobre sí; lo mismo cuando las heredades piden granos de trigo, lo mismo cuando las espigas están mirando á casa, *Satika* tiene sus oscuras ventanas, cual (ó á guisa de) unos hermosos ojos negros, mirando á la parte del mar; y en la orilla del mar teniendo *Santa Catalina* la de debajo de *Azurdi* un porta-luz en sus manos, ven un lindísimo pueblo, pueblo limpio, abundante de peces, pero sin olor de pescado; lugar ahogado, pero lleno de aliento y de ánimo; simpático á los extraños, pero *Bizcaíno* puro; pueblo vistoso, devoto, pueblo simpático; el pueblo en que yo nació.

Alisen (ó afilen) sus lenguas los hombres, cuando se les viene (suele venir) á la cabeza su pueblo natal, tenga cada uno las piedras calizas de los montes de su pueblo por *meollo de oro*, los cuervos por crias de paloma, por canto sonoro de ruiñen los ensordecedores rebuznos de los asnos viejos de su pueblo. Cada cual en buena hora *haga fuego á su torta*

Tanik neureari su egin dautsadala iñok esan-orduko, noan noan ur-ertzetik aldatzean zear, gora ta gora, Aizurdi-mendi-sorbalda-ganera.

Sei edo zazpi umekondo egozan artadipean: batean tñilioka, bestean soññuren bat ioten, bestean orra edo ona... beti iolasean da zerbait egiten. Zaarrena zazpi-zortzi urte-inguruko neskatilat̄su bat zan, eragiña ta bizkorra, edo, beren Amak esan eroana esateko, mutilla egiten asia. Onen urrengoa bost urte ta erdiko mutil bat zan, beronen nebea, Kose Kusto izentzat eukana; au zan Aman kutuna. Aitak neskaitilla zaarrent̄suari egiten eutsan begi argiena. Esatea da, Aitan antzeko alabaak eta Aman antzeko semeak izaten direala seme-alabarik zintzo ta men da zoritsuena. Au egia bada, Kose Kusto ta arrebea bene benetan zintzoak eta menak eta zoritsuak izan bear eben; alabea Aita bere zan; semea, Ama lakose arpegi-zabalkote, begi-urdiñ, buru-andi, arto-zale utsa. Neskaitillea izaten zan beti nagosi: nai etsean Aitan aurrean, nai artadian aparika edo maiñaka euren kontura iarduenean. Mutillak ezaban gogoz eroaten bera nagosi ez izan bearra. Egun bi edo iru aurrerago negarrez Amagana ioan zan baten, isilduta gero, Amari esan eutsan ea andi egin-da nor izango zan zaarrago: bera ala Inesat̄su (au zan neskaitillean izena). Amak barreka «Astokilo, esan eutsan, bera beti zaarrago.»

- ¿Eskolara ioaten banaz bere bai?
- Eskolara ioanezkeru, ez.»

Eztakigu aurrerantzean zer gerta edo iazoko zan. Ordurarte beññik beññ Inesat̄su zan Satikako ume guztien nagosia: dendaka edo dendarika

(arríme el ascua á su sardina).

Y antes de que nadie diga que yo *le he hecho á la mía*, vaya, vaya desde el borde del agua al (en) través de la cuesta, arriba y arriba, encima de la loma del monte Azurdi.

Bajo el encinal estaban seis ó siete niñitos, unas veces chillando, otras tocando alguna *música*, otra ahí ó aquí.... siempre jugando y haciendo algo. El más viejo era una muchachita de unos siete ú ocho años, *movediza* y viva, ó para decir lo que su Madre solía decir *empezaba á hacerse muchacho*. El siguiente á ésta era un muchacho de cinco años y medio, su hermano, que tenía por nombre José Justo; éste era el predilecto de la Madre. El Padre *le solía hacer ojo más claro* á la chica mayor. *Es un decir* que las hijas de semejanza del Padre y los hijos de semejanza de la Madre suelen ser los más fieles, dóciles y felices. Si esto fuese verdad José-Justo y la hermana debieran ser de veras fieles, dóciles y felices; la hija era (como) su Padre; el hijo como la Madre, carirredondo, de ojos azules, cabezota y aficionado á la broma. La muchacha era *la directora*, tanto en casa delante de su Padre, tanto en las comiditas y cuentos en el encinal. El muchacho no podía soportar contento esta supremacía de la hermana. Una vez, dos ó tres días más tarde, fué llorando donde la Madre, y callando de pronto, dijo á su Madre: «¿Cuando seamos grandes, quién será más viejo?»: la Madre riendo le contestó: «Tontín, Inesita (así se llamaba la niña) será siempre más vieja.

- ¿Aunque vaya yo á la escuela?
- En caso de ir á la escuela, no.

No sabemos qué había de suceder (ó acontecer) en adelante. Hasta entonces, por lo menos, Inesita era el jefe de todos los niños: si había que

iolastu bear baeben, bera izango zan saltzaillea; oillo oilloka inarduezkero, bera izaten zan oillo lokea edo Amalokea; idika, bera zan itzaiña ta itauralaria; Eliz-inguruka, Abadea; aurrekuka, Piela. Berba baten; neskatillea izaten zan edozein iclasalditan guztien Buru; Kose Kusto urren-go, ta beste ume gaztetšua goak batean burdi, bestean oillo, bestean erroskera... Inesatšuk nai ebana.

Kose Kustok Eliz-inguruka *Tšomin* y *Kolente* kanta edo erezten buru-utsik ibilli baiño naiago izaten eban aurrekua egiten iardu. Dantzaz ezeban iñoiz gogait egiten: gogoa azpertz baiño askozaz lenago gorputza eio edo nekatu ta ankaak soortuten iakazan. Ta bera zeinbat gogotšua go, beren arrebea ainbat nakarra go edo gogo bageago egoten zan. Aurrekua egitea zanean, Inesatšuk izaten zan Piela ta ganera tsiztularia. Aurrekurako deia asiaz batera, nebea ain gogoz artasika ikusirik, isilduten zan, naikoa zala esanda. Mutlak orduantse, len baiño bere alegintšua go, berak, soñua io ta berak dantzaz egiten eban. Arratsalde atan beste onenbezte iazo iaken. Aurrekulariaren ekiñaz asarratu zan neskatillea; ta, arako ota-suskurrak sutan tsinpartak ataraten dabezan baiño bere sarratua go, asi zirean biak alkarri esaten:

—Arro putza  
—Gangarra.  
—Mokoti.  
—Negarti.  
—Beeko zale.

—Baita i barriz Atorra zaar.»

Au entzun ebanean, atorra zaardunak seiña beeganean itši ta ederrak

jugar á tiendas ó tenderos, ella había de ser la vendedora: en caso de jugar á *gallinitas* (las palomas y el gavilán) ella solía ser la Madre: á bueyes, ella era el boyero ó guía bueyes; á procesiones, el cura; al aurreku, el Fiel (Alcalde): en una palabra la muchacha en cualquier juego solía ser siempre cabeza; José Justo el siguiente, y todos los demás niños menores una vez carro, otra gallina, otra rosquillera.... según quería Inesita.

José Justo prefería hacer el aurreku, que no andar con la cabeza descubierta cantando el «*Domine Colientes*» en la procesión. Nunca se astiaba de bailar; mucho antes que *aburrirse* el espíritu, se le molía ó cansaba el cuerpo y se le entumecían las piernas. Y cuando más animoso él, su hermana solía estar más desganada ó sin voluntad. Cuando se hacía el aurreku, Inesita solía ser Fiel y además tamborilero. Al mismo tiempo de empezar el *llamamiento* para el aurreku, en viendo á su hermano haciendo piruetas (tijeretas) se callaba (el tamborilero), diciendo que era bastante. El muchacho, entonces mismo, con más empeño que antes, él mismo tocaba y bailaba. Aquella tarde les aconteció otro tanto. La muchacha se enfadó de la insistencia del bailarín; y aun con más rapidez que suelen sacar chispas en el fuego los residuos de árgoma, empezaron ambos á decirse mutuamente:

—Orgullosa, inflao.  
—Sin fuste (fatua).  
—Mocoso.  
—Mañosa.  
—Aficionado á lo de abajo (echaduras).  
—Más tú, camisa vieja.

Cuando hubo oído esto la de la camisa vieja, dejando en (sobre) el sue-

emon eutsazan neba dantzariari. Onek besteari atorrako dindirri batetik oratu ta tarratada andi bat egin eutsanean, «ene kaderaak ariñ egizu» esanda, arrapataka iges egin eban, arrebea atzetik iarraika ebalá.

Eldu zirean onetan soloetako langileak; eta barre gogoz egin eben, ume biak alkarren leian arin aringa ikuseran. «Maridsena, atzetik dandarra daridsena» esan eutsan Amak Iñesari; ta onek kurrukaz da amurruz, atorrea erdi erditatik etenda, Aitari belarrira esan eutsan: «Aita, Kose Kustok matsingarratza dñan dau.»

Aitak orduan «Tsotso» dei egin eutsan dantzariari «Kose Kusto, ator ona. Kose Kusto, gero biar gero ezaziz etorriko gero *Ipestarrera*, Santidsago-eguna da baiña.»

Noiz edo noizko baten agertu zan Kose Kusto: atzekatñu, nakar, gozaga, gogo barik eta esku biak sakeletan sartata. Aitak urreratu zanean, irri-barrezka kaiskarreko tsiki bat emonda, ukabilla surretara eroanaz, «ik, tsotso, matsingarratzak dñan dok.» esan eutsan.

Au entzueran asi zan barriro Kose Kusto igesi, ta etzan gelditu, beren osaba Batñi, solotik gora etorrena, ikusiarve. Onen esanen esanaz, sartu zan aparitara.

## BIGARREN AGERRALDIA

### BATÑI AZALETIK

Iru ilebete aurrerago eldu zan Satikara gizon bat, amalau urte eukazanetik itsasoak austen ibilli ta beren barririk iñoiz bialdu ezebana. Etzan bera Satikarra. Amaika urte eukazala, Arratiako baserri batetik ekarri eben, ume-zurtz gelditu zanean.

Turubia Satikako, emakuma, egi-

lo la criatura (de pecho) le dió unos buenos á su hermano el bailarín. Este agarró de un girón de la camisa á la otra, haciéndole un gran rasgón; «ay piernas mías, andad ligeras», diciendo echó á huir atropelladamente, siguiéndole el hermano por detrás.

Llegaban en esto los tradajadores de las heredades y se rieron de gana al ver á las dos criaturas seguirse á porfia. «*María por detrás te cae el pingajo*», dijo la Madre á Inesita, y ésta rencorosamente rompiendo por medio la camisa al Padre le dijo al oído, «José Justo ha comido yerba francesa.» (dñan por ian.)

El Padre entonces llamó al bailarín: José Justo, ven acá. José Justo, *después*, mañana, aunque es Santiago no vendrás á Isparter.

En una de estas apareció José Justo *retraído*, desganado, sin dulzura, sin espíritu y con ambas manos en los bolsillos. El Padre se le acercó sonriendo y dándole un coscorrónico llevó (luego) el puño á la nariz y le dijo, «tú, pequeño, tú has comido yerba francesa.»

Al oír esto empezó de nuevo Jesús Justo á huir y no paró hasta que le vió su tío Bautista que venía por el prado arriba. *A fuerza de decir de éste*, entró á cenar.

## CAPITULO SEGUNDO

### BAUTISTA POR DE FUERA

Tres meses antes llegó á Satika un hombre, que desde que tenía catorce años anduvo rompiendo mares y que nunca envió noticias suyas. El no era de Satika. Teniendo once años le trajeron de una aldea de Arratia, cuando quedó huérfano.

La tía de aquel hombre ó de aquel

llea ta arrastaria, maratza ta giza-giña, Arratiarra bera, ta gazterik otsein edo ogipeko izatera etsetik urtena, zan gizon onen edo ume aren izekoa. Beren aizta alarguna il zala iakin ebanean, ioan zan iaio terri edo aizorrira; argi ta garbi antzau ebazan beren aizteak eukazan zor-arturenak; eta arek itsiricho ume zurtza semetzat artu ta begaraz bizi izatera Satikara eroan eban. *Batiste* zan ume au Arratiatik urteeran, *Batsi* biurtu eben illebeta igaro-orduko.

Ordurarte *Batsik* egiñiko gauzaak lau berbatan esan leikez; bada neska-mutil gaztetñuak eta andra-gizon zaarrak, geienak beintzat, suetetik kanpoan eztabe esateko gauza andirik egiten: umeak gurasoakan da atso-aguraak seme-alabakan eukiten dabez, ez bakarrik elikatura edo ianedana, baita entzutea ta izena bere. Ume guztiak amalau edo amabost urterarte izaten dira *Urli* edo *Berendia*-n seme alabaak; irurogei urtetik gorako atso-aguraak barriz *Urli* edo *Berendia*-n *Aita* ta *Ama*. Eurenaz, ez batzuk ez besteak eztabe ez entzuterik ez izenik eukiten.

*Batsin* amaikagarren urtetik ama-lagarrenerarteko gertaera edo ia-zoerak gitsik eukezan gogoan; andik aurrerakoak berak baiño bestek ezezik; da nai-ta-nai-ezkoa zan, iakin nai ebazanak, berari entzutea.

Berari barriz (iñogaitik tñarto esatea ezta ondo ta isillik egotea oba da baiña) beinik bein arpegira ezarren, *Batsi*-guzur esaten eutsen; da beren esakera guztiak egitzat artu izaten eztreana, ezizenak berak agiri dau.

niño era *Toribia* de *Satika*, mujer hacendosa, económica, diligente y buena esposa, ella de *Arratia* había salido á servir desde la juventud. Cuando supo que su hermana viuda había muerto, fué al pueblo natal; clara y pulcramente arregló las deudas y haberes que su hermana tenía; y le tomó como hijo y le llevó á *Satika* á vivir con ella al huérfano que aquella había dejado. Esta criatura era *Batiste* hasta salir de *Arratia* y se convirtió en *Bachi* antes de pasar un mes.

Las cosas hechas por *Bautista* hasta entonces pueden decirse en cuatro palabras; pues los jóvenes y ancianos, la generalidad por lo menos, del hogar á fuera no se podrá decir que han hecho grandes cosas: los niños en los padres y los padres en los hijos suelen tener no sólo alimento, sino también fama y nombre. Todas las criaturas hasta los catorce ó quince años suelen ser hijos de fulano ó de mengano y los ancianos de sesenta arriba, en cambio, padres de fulano ó de mengano. De suyo ni unos ni otros tienen fama ni nombre.

Pocos tenían en la mente lo que le sucedió á *Bautista* desde los once años hasta los catorce; desde entonces (lo de) en adelante nadie más que él lo sabe: y quiera que no, el que lo quiera saber, que se lo oiga á él.

A él en cambio (aunque el decir mal de nadie no está bien y es mejor estar callado) por lo menos aun cuando no á la cara, *Bautista* embustero le solían llamar, y el mismo apodo demuestra que no todos sus dichos solían tomarse por verdades.

## KALEEN IZENAK

Antsiña Euskalerrico uri geiengan euskerazko izenak eukezan kaleak. Gaur ipinten direan barriak erderazkoak dira guztiak; eta lengo zaar asko bere erderatuta dagoz.

Gagozan uri onetan, Bilbon, *zazpi kaleak* deritsenak, edo antsiñako ta egiazko Bilbon odola dauken zazpi sanak, izen onek daukez: *Goienkale* (gaur *Calle Somera*), *Artekale* (gaur *Artecalle*), *Dendarikale* (gaur *Calle de la Tenderia*), *Belostikale* (gaur *Belosticalle*), *Barrenkale* (gaur *Barrencalle*). ta *Barrenkale-barrena* (gaur *Barrencalle-barrena*). *Zazpigarrenak* (gaurko *Calle de Carniceria Vieja-k*) ezta-kigu zelango izena eukan.

Arrezkero ipiñiriko izenen artean ezta ausa bat bere euzkerazkorik aurkitu al izango. *¡¡Astarloan* izenean eginiko kalea bere erderazko izenduna da!!

Donostian bere gitsi bat gora-bera beste onenbezte iazoarren, aurtan alde-zaarreko kaleai izen barriak ezarri dautsez. ¿Beste onenbezte ezin egin leike beste errietan? Bilboko uri-etse edo udaletsean onako gauzarik eskatutea, alper alperrik astia galdutea izango litzake. Baiña euskaldun errietan ¿zegaitik eztautse kaleai euskaldun izena ipiñi bear? Bizkaiko erri guztien artean, gazteena eida errikoiena: Elantsober, Ibarangeluk Bizkaiko itsasoan beren besoetan batiaturikoa.

Ipiñetan seme guztien artean gazteena izaten da beti burutsuena, zintzoena ta edozetarako errimeena.

## LOS NOMBRES DE LAS CALLES

Antiguamente, en la generalidad de los pueblos del país Basco, las calles tenían nombres bascongados (euskaldunas). Hoy los puestos nuevamente son todos castellanos (extraños); y muchos de los viejos anteriores están castellanizados.

En este pueblo en que estamos, Bilbao, las llamadas siete calles ó las siete venas que contienen la sangre del Bilbao antiguo y verdadero: tienen estos nombres, *Goienkale* (hoy *Calle Somera*), *Artekale* (hoy *Artecalle*), *Dendarikale* (hoy *Calle de la Tenderia*), *Belostikale* (hoy *Belosticalle*), *Barrenkale* (hoy *Barrencalle*), y *Barrencalle-barrena* (hoy *Barrencalle-barrena*). No sabemos cómo se llamaba la septima calle hoy calle de *Carniceria Vieja*.

Entre los nombre puestos de entonces acá quizá no pudieramos hallar ni uno de origen euskaro. Aun (el rótulo) de la calle hecha en nombre de *Astarloa* está el nombre en Castellano (*Calle de Astarloa*).

A pesar de haber acontecido en San Sebastián otro tanto poco más ó menos, hogaño se han puesto á las calles de la parte vieja los nombres de nuevo (los antiguos). ¿No puede hacerse otro tanto en los demás pueblos? El pedir cosa semejante en la *Casa de la Villa* de Bilbao sería perder ociosamente el tiempo. Pero en los pueblos euskaldunas ¿por qué no se han de poner á las calles nombres euskaldunas? Entre todos los pueblos euskaldunas, el más joven dicen que es más patriota: Elanchobe, bautizada por Ibarangüelua en sus brazos en el mar de Bizcaya.

En las Fábulas, siempre suele ser el hijo más joven el de más cabeza, el más fiel y el más hábil para todo.

Gure erririk gazteen au asi daitela kaleen izenak euskerazkotuten, da geldika geldika beste erriak bere gogoz edo lotsaz iarraituko dautse bide eder onetan.

Onetarako *Euskalzal*en laguntasunik bear izanezquero, gogoz al dai-gun giñoan lan egingo dogu.

Lenago erri ta kale ta etse, guz-tiak genduzan euskerazko izenekoak. Elizateen ondakiñiak uri barriak egin zireanean, onetariko batzuk erderazko izenak artu ebezan: *Miravalles*, *Villaro*, *Plencia*.... Kaleakaz iazo dana esan dogu. Gaur egiten direan etse asko, atan uri ondoetakoak, erderazko izenekoak dira: *Miramar*, *Vista alegre*, *Casa monte*, *La Junquera*

Bagoz orregaitiño aberats batzuk euren etse ta iauregiai euskerazko izenak ezarri dautsezanak. Ona emen gomuta doguza izen batzuk: *Itsasaldegi* Lequition, *Goider* da *Bidarte* Deustun, *Udetsea* Gernikan, *Osasuntsua* en Orduña.

Izan leike bat edo batek gitsitzat eukitea kaleen izenen aldakuntsa au. Ezereza gitsiango da. Lauzurika lauzurika egiten da amaseikoa.

Beste gauza bat izango litzateke onenbeztegaz aseko bagiña. Egin daigun mai baten egiten dana. Inor ezta saldeaz edo sukuaz aseten.

Asi gaizan kaleetatik, eta gero gerokoak.

Este nuestro pueblo más joven que empiece á *euskaldunizar* (de nuevo) los nombres de las calles, y poquito á poco otros pueblos de grado ó *por el que dirán* le seguirán en este hermoso camino.

Para ello, si alguno necesita la cooperación del Euskalzale, gustosos en cuanto podamos trabajaremos en ello.

Antes los pueblos, calles y casas, todos eran de nombres bascongados. Cuando se hicieron pueblos nuevos, (fundación de las Villas), con las sobras de las Anteiglesias, algunos de estos tomaron nombres castellanos: *Miravalles*, *Villaro*, *Plencia*... Hemos dicho ya lo ocurrido con las calles. Muchas casas que se hacen hoy, sobre todo en las cercanías de las Villas, tienen nombres castellanos; *Miramar*, *Vista alegre*, *Casa monte*, *La Junquera*.

Sin embargo hay algunos ricos que á sus casas y palacios han puesto nombres bascongados. He aquí algunos que recordamos: *Itsasaldegi* en Lekeitio, *Goider* y *Bidarte* en Deustu, *Udetsea* en Gernika, *Osasuntsua* en Orduña.

Puede ser que alguno tenga por poca cosa esto de mudar de nombre á las calles. Menos es nada. Ochavo á ochavo se hace la onza.

Otra cosa sería si con esto nos diéramos por satisfechos. Hagamos lo que se hace en una mesa. Nadie se suele satisfacer con el caldo ó con la sopa.

